

Ordizian, **2010ko urtarrilaren 14an**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA**                      Jose Miguel Santamaria Ezeiza jauna

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etkezaretza jauna	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Ban Asenjo Garde jauna	EA taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Jose J. Lopez fernandez jauna	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE-EE (PSOE) taldea.
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK**

Iñigo Manrique Cia jauna	PP taldea
--------------------------	-----------

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTU-HARTZAILEA:**

Jose Miguel Santamaria Ezeiza Jose Luis Aranburu Otegi jauna

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra andrea



## BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

### AZTERTUTAKO GAIAK EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

1.2009ko azaroaren 26an egindako Osoko bilkuraren akta onartzea.	3. orr.
2.2009ko abenduaren 4an egindako Osoko bilkuraren akta onartzea.	3. orr.
3.-Preserbatiboaren ezaugarriez Benedicto XVI.ak egindako adierazpenei buruz Aralarrek aurkeztutako mozioa.	4. orr.
4.-Osoko bilkurak egiteko ordutegiari buruz Aralarrek aurkeztutako mozioa.	8. orr.
5.Alkatetza Dekretu bidez onartutako kreditu aldaketen berri ematea.	10. orr.
6.2010 ekitaldiko aurrekontua onartzea.	10. orr.
7.2010 ekitaldiko Plantilla Organikoa.	20. orr.
8.2010 ekitaldiko lanpostuen zerrenda.	22. orr.
9.Zinegotzi karguari uko egitea, Osoko Bilkuran jakinaraztea.	23. orr.
10.DBLO (Datuen Babeserako Lege Organikoa) betetzeko eta izaera pertsonaleko datuen fitxategiaren segurtasun agiria onartzea.	24. orr.

## PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK

### GORABEHERAK

### GALDE-ESKEAK

- .- “La Milagrosa” lokalen egoera txarra.
  - .- Hizkuntza Eskola Ofizialaren inaugurazioari buruzko zenbait ohar.
  - .- Udaleko Osoko Bilkuran informazioa ematea, adinekoen boluntarioritza sustatzeko Gizarte Ongizatearen Aholku batzordeak onartu behar duen Adierazpenari buruzkoa.
  - .- Daleko osoko bilkurak egiteko ordtegia.
- ..... 25. orr.

### ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 8,15 h.

BUKAERA ORDUA: 10.00



Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman du Batzordeburuak

### 1.-2009ko azaroaren 26ko akta onartzea

#### Proposamena

**2009ko azaroaren 26ko osoko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, EA 1, PSE-EE(PSOE)3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (Leunda, Asenjo eta Auzmendi jaun-andreak Batzordean egon ez izanagatik).

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendako bigarren puntuaren berri eman du:

### 2.-2010ko abenduaren 4ko ezohiko osoko bilkuraren akta onartzea.

#### Proposamena

**2009ko abenduaren 4ko osoko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.



## Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

## Bozketa

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (Maiza, Asenjo eta Leunda jaun-andreak, bilkurara joan ez izanagatik).

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

3.-ARALAR alderdiak aurkeztutako proposamen politikoa, Benedikto XVI.ak preserbatiboaren ezaugarriez egindako adierazpenei buruzkoa.

## Proposamena

EHGAMgamEK, Euskal Herriko Gay-Les Askapenerako Mugimenduak, ondoko dokumentua aurkezten du, udal bilkuran eztabaidatzeko: Benedicto XVI.a aita santuak preserbatiboaz egiten dituen azalpenen gaineko Mozioa.

### JUSTIFIKAZIOA

1.- Vatikanoko Aita Santuaren adierazpena Yaundetán (Camerún), 2009ko martxoaren 17an, Benedikto XVI.a aita santuak hau esan zuen: "HIESa/GIBaren atazoa EZIN da konpondu preserbatiboaren banaketarekin; aitzitik, preserbatiboek arazoa handitu egiten dute".

2.- Osasun publikoaren aurkako adierazpena Martxoaren 19an, berehala, nazioarteko autoritate medikuzientifikoek –Nazio Batuen HIESa/GIBaren gaineko Egitasmo Bateratuak (ONUSIDAK), Nazio Batuen Biztanleenak (UNFPAk) eta Osasunerako Munduko Erakundeak (OMEK)- iritis zioten beharrezkoa zela adierazpen publiko plazaratzea, Aita Santuak esandakoak zuzentzeko. Erakunde horiek adierazi zuten preserbatiboaren erabilera elementu garrantzi-garrantzizkoa dela GIBa modu integral, eraginkor eta jasangarrian aztertzeko. Era bereak, preserbatiboaren promozioaren alde azaldu ziren.

Erakunde horiek birritan adierazi dute gizonezkoentzako latexko preserbatiboa dela GIBa eta sexu bidezko infekzioen aurkako teknologiarik eraginkorrena. Esan gabe doa, bide batez, erakunde horiek inpartzialak eta prestigio handikoak direla.



Bestalde, The Lancet aldizkariak, munduko aldizkari mediku ezagunenak dio Aita Santuaren adierazpenak desegijua eta ijerraj dureka; batetik, agintari batek egiten dituelako; bestetik, arrazonamendu zientifikoaren aurkakoak direlako; eta azkenik, uste okerra sortzen dutelako, eta uste oker horiek, gainera, Doctrina Katolikoa indartzeko herlburuarekin eginda daudelako.

3.- Oihartzun Social Kontuan izan Aita Santuaren adierazpenek mundu-mailan dutela oihartzuna. Halaber, kontuan izan milaka pertsonarengan dutela eragina. Eragin hori, batez ere, GIBak gehien zigortutako lurraldeetan gauzatzen da, non eta GIBaren aurkako tresnarik eraginkorrena preserbatiboa denean. Gurean, berriz, adierazpen horien eragina nabarmena da. Zergatik?

- a) gurean Eliza Katolikoak duen ezarpenagatik;
- b) apaizek, Eliza Katolikoaren Doktrinaren zabaltzaile diren aldeti, preserbatiboaren eraginkortasuna ukatzen dutelako.

4.- GIBaren aurkako borroka zientzialariek eta agintari publikoak gauzatu behar dutena. Behar-beharrezkoa den premia hori, urteotan, Estatu eta Gobernuetako agintariek zehaztu dute GIBari buruzko konpromiso-aldarrikapen hori Nazio Batuek egindako ezohiko bilkura batean eman zen argitara 2001eko ekainaren 27an Mundu mailako krisiaren aurrean, mundu mailako ekintza.

Milurtekoaren Ekitaldien herburuetako bat ere bada GIBaren aurkako borroka, 2000urteko Milurtekoaren Goi-bileran hartu zen erabaki hori. Bertan, munduko agintariek garapena eta gosea desarrarazteko asmoz, idarrak batuko zituztela hitz eman zuten, 2015.urterako, edota lehenagoko 8 xede eta 18 helburu zehatz beteta.

Badago kontuan hartu beharreko beste aurrekari bat: Nazio Batuen Erakundeko partaide diren estatuak, 2006ko ekainean, GIBari buruzko goi-bileran, aho batez, egindako aldarrikapen politioa; eta, bereziki, aldarrikapen horren 22. konpromisoa. Estatuetakoa agintariek, 22. konpromisoan; honako hau aldarrikatzen dute: "GIBaren infekzioaren prebentzioa, bai estatu, bai lurralde, bai nazioarteko ekintza behar du izan, eta pandemiatzat hartuko da. Gainera, herrialde guztietan, arrisku-joerak gutxitzeko eta joera sexual arduratsuak sustatzeko prebentzio-programa zabalik izango dira. Era berean, erabiltzaileek infekzioak ekiditeko tresnak, hala nola, gizona zientifikoak, zein emakumezkoen preserbatiboak eskura izango dituzte".

5.- Udal agintarien eskumena, osasun publikoaren gainean. Osasunaren gaineko Lege Orokorrak eta Toki Erregimenaren Oinarrien gaineko Lege erregulatuak udal erakundeei egozten diete osasun publikoaren gaineko eskumena eta erantzukizuna; baita lehen mailako osasun-harreraren kudeaketa ere. Ez da udalbatza honen eginkizuna, jakina, katolikoaren arteko kastiitatea bultzatzeko Vatikanoko politikak baloratzea. Aitzitik, udalbatzaren lana da, agintari batek osasun gaineko sasi-mezua zabaltzen duenean, mezu hori salatzea; mezu horrek, gainera, egia zientifikoa urratzen duenean; eta argi dago preserbatiboak GIBa saihesten duela.

Ezaguna da erakunde publikoek GIBaren aurkako borrokan, gurean, duten kezka. Kezka horren isla izan dira a) gizatalde askoren ekimena eta b) GIBaren aurkako borrokan, botere publikoen esku hartzeko



borondatearekin jarraitu nahi izatea, batez ere, Afrika azpi-sahararren. Horren adibide da Eusko Jaurlaritzak GIBaren aurkako programari emandako 400.000 euroak.

Gainera, asko eta asko ria, Aita Santuak esandakoaren eraginez, kolokan gera daitezkeen eximen sozialak koopreazio-egitarau desberdinetan aurreikusita daudenak. Horiek ere, batez ere, Afrikan. Benedicto XVI.a Aita Santuak esandako hitzek milioika eta milioika pertsonen osasuna arriskuan jartzen dute. Halaber, sinesmen baten defentsa dena aholku mediku batekin nahas daiteke.

6.- GIBaren aurkako borroka eta politikoen lagunaza 2009ko apirilaren 2an, Belgikako Parlamentuak Ebazpen-proposamena onartu zuen. Proposamen horri begira dago mozio hau. Ebazpen-proposamen horretan Benedicto XVI.ak egindako adierazpenak ezesten dira.

Hain dira larriak Aita Santuak egin dituen adierazpenak; eta hainbesteko eragina izan dezakete behin eta berriro esparru desberdinetatik egin diren adierazpen horiek, ezen pentsatzen dugun edonondo autoritate publiko edota arduradun sanitario, udal agintariak barne, EZIN dela burumakur gelditu sasi-adierazpen horien aurrean. Halaber, GIBaren eraginpean eta garapen bidean dauden herrialde asko eta asko, batez ere Afrikan, kinka larrian jartzen ditu.

Horregatik guztiagatik, beste erakunde-egoitzetan egin den moduak, zuei ere gauza bera eskatzen dizuegu eta honako hau aurkezten dugu:

## MOZIOA

1.- Udalbatza, kezkatuta egoteaz gain, ez dago ados Benediko XVI.a Aita Santuak esandakoekin. Benedicto XVI.a Aita Santuak esan zuen. "HIESa/GIBaren arazoa EZIN dela konpondu preserbatiboan banaketarekin; aitzitik, preserbatiboek arazoa handitu egiten dutela". Udalbatzak adierazten du gizonezkoentzako latexko preserbatiboa dela GIBa eta sexu bidezko infekzioen aurkako teknologiarik eraginkorrena.

2.- Udalbatzak GIBaren aurkako borroka sustatuko du. Horretarako, zehaztasun zientifikoetan oinarrituko da, eta, era berean, preserbatiboaren erabileraren sustatzaile izango da, sexu bidezko gaixotasunen aurkako metodo eraginkorra delako.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna.

ARALAR alderdiak aurkeztutako proposamen politikoa, Benedikto XVI.ak egindako adierazpenei buruzkoa. Honekin batera, bere taldeak, PNV-EAJ taldeak adierazpenen inguruan egindako adierazpen alternatiboaren berri eman du.



Bere taldeak uste du osasunarekin lotutako gaiak osasunaren eskumenak direla, eta osasun arauak jarraituz preserbatiboa HIESa eta sexu bidez kutsatutako gaixotasunak saihesteko metodorik eraginkorrena dela.

Ez du ez erlijio katolikoaren, ez musulmanaren ez beste erlijio baten dogmaren baloraziorik egingo.

### **PROPOSAMENA**

Udal agintarien eskumena, osasun publikoaren gainean Osasunaren gaineko Lege Orokorrak eta Toki Erregimenaren Oinarrien gaineko Lege erregulatzailleek, bere 2. artikuluan, h eta i ataletan, udal erakundeei egozten diete osasun publikoaren gaineko eskumena eta erantzukizuna, baita lehen mailako osasun-harreraren kudeaketa ere.

Edonola ere, osasun-sistema moderno eta aurrerakoi baten antolakuntza Zumaia bezalako udal baten (eta orohar, edozein Udalen) eskumenetik at geratzen den kontua izanda, Osakidetzaaren ardura dela ulertzen dugu.

Bestalde, egia da, nazioarteko osasunaren inguruan zeresana duten erakunde guztiek bat egiten dutela, GIBaren gaixotasunari mugak era eraginkorrean jartzeko bide zuzenena preserbatiboaren erabilpenetik pastasen dela baieztatzerakoan.

Beraz, Ordiziako EAJ-PNV udal taldeak honako mozioa aurkezten du:

-Irizpide zientifiko hutsak baliatuz, gizonezkoentzako latexko preserbatiboa da GIBa eta sexu bidezko infekzioen aurkako teknologiarik eraginkorrena.

-Udalbatzak GIBaren aurkako borroka sustatuko du. Horretarako, zehaztasun zientifikoetan oinarrituko da, eta, era berean, preserbatiboaren erabileraren sustatzaile izango da, sexu bidezko gaixotasunen aurkako metodo eraginkorra delako.

Ordizian, 2010eko urtarrilaren 14a

#### **Dubreuil jauna**

Bere taldeak ez duela bozkatuko esan du. Preserbatiboari buruzko postura argi dute, baina ez dituzte Batikanoaren adierazpenak eztabaidatuko.

#### **Maiza andrea**

Azaldu du Elizak ez diola zientziari tokirik edo hitzik kenduko. Preserbatiboak HIESaren kutsadura saihesteaz gain sexu bidez kutsatzen diren beste gaixotasun batzuen kutsadura saihesten duela, eta okerrena beti emakumeak jasaten duela. Proposamen politikoaren alde bozkatuko dute.

### **PROPOSAMENAREN BOZKETA**

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PNV 4, EA 2)

Kontrako botoak: 0



Abstentzioak: 0

PSE-EE/PSOE eta EB-Berdeak/Aralar taldeko ordezkariak, ez dute bozkatu.

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**

### **PROPOSAMEN POLITIKOAREN BOZKETA**

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 3 (EB-Berdeak/Aralar 1, EA 2)

Kontrako botoak: 4 (EAJ)

Abstentzioak: 0

PSE-EE/PSOeko ordezkariak, ez dute bozkatu.

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendako laugarren puntuaren berri eman du:

4.-ARALAR alderdiak Osoko bilkurak egiteko ordutegiari buruz aurkeztutako proposamen administratiboa.

#### Proposamena

Ordiziako Udalak herritarren parte artesa sustatzeari begirako hainbat egitasmo jarri ditu abian legegintzaldian zehar, herritarrek Udalerriko zeregin politikoaren integrazteko helburuarekin.

Ahalegin hori, ordea, ez dator bat osoko Bilkurak egiteko udalak finkatutako ordutegiarekin. Osoko Bilkura edo Udalbatza Plenoa gestio eta erabaki organo gorena da eta Udalak beharrezko bitartekoak jarri beharko lituzke organo horretan herritarren parte hartzea ahalbideratzeko. Osoko Bilkurak goizeko 8etan egiteak zaildu egiten du herritarrek organo horretan parte hartu ahal izatea.

Udalak berak prestatu eta onartutako Barne Araudian Osoko Bilkurak irekiak izango direla esaten da eta jende gehiena joan dadin ordu egokian deituko direla. Bistan da goizeko 8ak ez dela jende gehien joan dadin ordurik egokiena.

Hori horrela, Udalbatzarrari zera eskatzen diogu:

1.- Osoko Bilkurak goizean deitu beharrean arratsaldeak deitzea, egun finkoetan eta arratsaldeko 7etan.





Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Leunda jaunak:

Aralarko ordezkari bezala, uste du gobernu taldeak ez duela behar bezala justifikatzen osoko bilkura goizez egitearen arrazoia. Ez dago koherentziarik eta batez ere araudia urratzen du.

Ez dago koherentziarik goizeko 8.00etan ez delako herritarren parte-hartzea errazten, ezin duelako herritarren gehiengoak.

Beste alde batetik, Udaleko Barne Arautegiak onartutako araua urratzen ari dira, bertan, osoko bilkura parte-hartze handiena lor daitekeen orduetan egin behar dela zehazten baita.

Barne arautegia alda daitekeela badaki, baina arautegia aldatzen ez den bitartean araua urratzen ari dira.

Konstituzioak dio herritarren parte-hartzea modu zuzenean eta ordezkari politikoen bidez bermatu behar dela.

Azkeneko puntu hau ez da ANVrekin betetzen, Alderdi Politikoen Legeak ilegalizatuta, ezin du udaleko osoko bilkuraren zati izan eta bertan parte hartu.

Ordutegi aldaketa eskatzeko nahiko arrazoi badago. Azaldu du, atzo bertan, Ordizia Lantzen SAREN Administrazio Aholku Batzordean, San Juango BOEko etxebizitzaren zozketarekin lotuta, zozketarako ordua finkatu zela, 18,00etan, joan nahi zutenak bertan egotea bermatzeko.

PSOEren arrazoia zein den argi du, ez dute nahi ANVkoak etortzea, baina ez ditu PNV eta EAKoak ulertzen.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 1 (IU-EB/ARALAR)

Kontrako botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3,EA)

Abstentzioak: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

#### 5. Alkatetza Dekretu bidez onartutako kreditu aldaketen berri ematea.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru arauak 27.3 artikulua dioenez, Gipuzkoako entitate lokalen aurrekontuak, Aurrekontuen aldaketen berri ematea arautzen du.

2009-10-22ko bilkuran kreditu gehigarrien onarpenaren berri eman zen.

2009-11-26ko bilkuran kreditu transferentzien eta kreditu gaitzeen berri eman zen.

Orain, ondoren gertaturiko Kreditu transferentzien eta Kreditu habilitazioen onarpenen berri ematen da.

##### Kreditu transferentziak

Zenbakia	Dekretu zenb.	Zenbatekoa
7	1020	33.400
8	1086	19.000
9	1117	22.124
10	1129	2.320
11	1131	6.000

##### Kreditu habilitazioak

Zenbakia	Dekretu zenb.	Zenbatekoa
9	1005	44.000
10	1120	92.000
11	1132	4.000
12	1133	4.400
13	1134	45.000
14	1135	13.400

**Osoko bilkura jakinaren gainean dago.**



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

#### 5.2010 ekitaldiko aurrekontua onartzea.

##### Proposamena

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak, 2010eko urtarrilaren 7an egindako bileran, Alkate jaunak idatzitako Aurrekontu proiektuari aldeko onarpena eman zion, eta osoko bilkuran honakoa aurkeztu du:

**AKORDIO PROIEKTUA**



2010 urterako Alkateak idatzi eta proposatutako Aurrekontu proiektua onartzea, kapituluka honako laburpenak dituela:

#### SARRERAK

KAPITULUA	JATORRIA	EUROAK
1	Zerga zuzenak	2.091.300
2	Zeharkako zergak	600.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	2.407.808
4	Transferentzia arruntak	7.542.957
5	Ondare-sarrerak	845.610
6	Inbertsio errealak besterentzea	6.807.826
7	Kapitalaren transferentziak	383.800
8	Finantza-aktiboen aldaketa.	45.000
9	Finantza-pasiboen aldaketa.	1.721.521
	<b>GUZTIRA</b>	<b>22.445.822</b>

#### GASTUAK

KAPITULUA	JATORRIA	EUROAK
1	Langileen ordainsariak	4.593.762
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	6.488.126
3	Interesak	124.608
4	Transferentzia arruntak	1.415.640
6	Inbertsio errealak	9.205.256
7	Kapital transferentziak	81.430
8	Finantza-aktiboen aldaketa.	45.000
9	Finantza-pasiboen aldaketa.	492.000
	<b>GUZTIRA</b>	<b>22.445.822</b>

Hurrengo aurrekontuen osaketaren emaitza da.

#### UDALAREN BEREZKO AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
1. Kap.-	2.091.300	1. Kap.-	3.600.455
2. Kap.-	600.000	2. Kap.-	3.281.439
3. Kap.-	864.800	3. Kap.-	100.700
4. Kap.-	6.444.777	4. Kap.-	2.454.506
5. Kap.-	829.500		
6. Kap.		6. Kap.-	1.231.368
7. Kap		7. Kap.-	101.430



8. Kap.-	45.000	8. Kap.-	45.000
9. Kap.-	431.521	9. Kap.-	492.000
GUZTIRA	11.306.898	GUZTIRA	11.306.898

**ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTUA "SAN JOSE EGOITZA"**

SARRERAK		GASTUAK	
1. Kap.		1. Kap.-	747.407
2. Kap.		2. Kap.-	1.780.317
3. Kap.-	1.005.978	3. Kap.	
4. Kap.-	1.524.726	4. Kap.	
5. Kap.-	500		
6. Kap.		6. Kap.-	3.480
7. Kap.		7. Kap.	
8. Kap.		8. Kap.	
9. Kap.		9. Kap.	
GUZTIRA	2.531.204	GUZTIRA	2.531.204

**ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTUA "HERRI ANTZOKIA"**

SARRERAK		GASTUAK	
1. Kap.		1. Kap.-	77.720
2. Kap.		2. Kap.-	74.210
3. Kap.-	51.500	3. Kap.-	50
4. Kap.-	93.980	4. Kap.	
5. Kap.-	6.500		
6. Kap.		6. Kap.-	20.000
7. Kap.-	20.000	7. Kap.	
8. Kap.		8. Kap.	
9. Kap.		9. kap.	
GUZTIRA	171.980	GUZTIRA	171.980

**MAJORI KIROLDEGIA SLREN BALANTZEAREN AURREIKUSPENA**

SARRERAK		GASTUAK	
1. Kap.		1. Kap.-	168.180
2. Kap.		2. Kap.-	844.800
3. Kap.-	485.530	3. kap.	
4. Kap.-	600.114	4. Kap.-	81.774
5. Kap.-	9.110		
6. Kap.		6. Kap.-	383.800



7. Kap.-	383.800	7. Kap.	
8. kap.		8. kap.	
9. Kap.		9. Kap.	
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.478.554</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.478.554</b>

### ORDIZIA LANTZEN, Saren BALANTZEAREN AURREIKUSPENA

SARRERAK		GASTUAK	
1. kap.		1. Kap.	
2. kap.		2. Kap.-	507.360
3. kap.		3. Kap.-	23.858
4. Kap.		4. kap.	
5. Kap.			
6. Kap.-	6.807.826	6. Kap.-	7.566.608
7. Kap.		7. Kap.	
8. Kap.		8. kap.	
9. Kap.-	1.290.000	9. Kap.	
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.097.826</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>8.097.826</b>

Segidan deskribatutako Aurrekontu Egikaritzearen udal araua onartu.

### 2010 AURREKONTUKO EGIKARITZE OINARRIAK

1.2010eko ekitaldi ekonomikoan zehar, Ordiziako Udalak abalak utzi ahal izango ditu bere Aurrekontuaren hasierako kredituen zenbateko osoaren %1 arte. Erakunde Autonomoek ezin izango dute abalik eman, ezta hirungarangoekin edozein motako bermerik hitzartu ere.

2.Gastuen Aurrekontuen ondorengo partidak handitu daitezke horiei dagokien finantziazioaren arabera.

<b>Gastuak</b>	<b>Sarrerak</b>
Tokiko zergen kudeaketaren kostua.	Sarrerak. Kontzeptuak. 112.01, 112.02, Foru Aldunditik 130.01 eta 130.02
Derrigorrezko Dirubilketa kontratua.	Sarrerak 392.01 eta 393.01 kontzeptuak
Ibilgailuak kentzea	Ibilgailuak kentzeagatik sarrerak
Bide seinaleen mantenua (pilonak)	Matxurak sortzen dituztenen diru-sarrerak.

Alkatetza Dekretu bidez kreditua handitzeko espedientea onartuko da.

3.Saileko delegatu arduradunak eskatuko ditu funtzio talde berean egin beharreko kreditu transferentziak eta Alkatearen Dekretu bidez baimenduko da.

Partidak gaintzen badira, eta Delegazioak ez baditu dagozkion transferentziak proposatzen, Ogasun Delegazioak egokiak iruditzen zaizkion partidak aukeratuko ditu.

Funtzio talde desberdinen arteko kreditu transferentziak Osoko bilkurari dagozkie.



Inbertsioetarako kreditu jaitziera dakarren kreditu transferentzien espedienteak, osoko bilkuraren erabakia beharko du.

Erakunde Autonomoetako Lehendakariak Alkateak dituen eskumen berberak izango dituzte gai honetan.

4. Kredituak sartzeko espedientearen zirriborroa Kontu-hartzaileak prestatuko du, abenduaren 31n Baimenduta (A) edo prest (D) fasean geratu diren gastuen arabera. Espedientea Alkate jaunak onartu beharko du.

5. Alkateak kreditu gehigarrien espedienteak onartu ahal izango ditu baldin eta zenbatekoa, ez bada sarrera arrunten aurrekontuaren %5a baino gehiago hazten.

6.833.121.00.01 (langileentzako maileguak) partidaren kreditua eskura izateko, interesatuek aurretik eskaera egin beharko dute, proposatutako gastuaren beharra eta aurrekontua zehaztuz. Ogasun Delegazioak mailegua emateko arrazoia onartu beharko du, eta hala erabakiz gero, Alkate jaunaren Dekretu bidez bideratuko da.

7. Dedikazio osoa duten agintari politikoen ordainsariak eta zinegotziek jasotzen dituztenak, 2010 urteko ekitaldian zehar bere horretan geratuko dira, krisi ekonomikoa jasaten duten pertsonetikiko elkartasuna azaltzeko.

8. Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza handiagoak ematen badira, gastu kredituak aktibatuko dira zenbateko berarekin dagozkion gastu partidetan. Gaitze hau Alkate jaunak baimendu beharko du.

9. Honako gastuak egiteko:

- Langileen kontratazioa.
- Kanpoko lana kontratatuzeko.
- Zehazki mantenu-lanak ez diren lan edo obrak udal zerbitzuetakoek egitea.
- Inbentarioan sartu daitezkeen materialak hartzea.

Alkatetza Dekretuaren alde aurreko onarpena beharko da, aurretik Kontu-hartzaileari txostena eskatuta. Alkateak onartutako Dekretua jasotzen ez den bitartean, gastuaren espedientea bere horretan geratuko da, ez da bideratuko.

Aipatutako gastuen fakturek dagokion Delegazioaren oniritzia jaso beharko dute.

10. Bi hilabetetik behin Kontu-hartzaileak Delegazio guztiei beraien aurrekontu partiden egoera aurkeztuko die, eta onartutako kreditua ez gairatuzko neurri egokiak hartu beharko dira. Dagoen kreditua nahikoa ez dela pentsatuz gero, ez-ohiko gastuak egin badira edo Aurrekontua egiteko unean aurrekusi ez ziren behar batzuk agertu badira, dagokion Delegazioak kreditu gehigarria ematea eskatuko du, horretarako dagokion finantziakzioa eskatuz edo kreditu-geldikina erabiltzeko eskatuz, geratzen bada.

11.- Dietak. Udaleko ordezkariak, Alkateak eta zinegotziek, udaleko langileak, desplazamenduek sortutako gastuak jasotzeko 4 eskubidea izango dute, udal eskumenerako gaiak kudeatzeko baldin badira desplazamenduak, eta udalak horretarako baimena eman badie.



Gastu hauen zenbatekoa honakoa izango da:

Autonomia Erkidego barruko gastuak, norberaren autoan, 0,29 euro/km.

Gosaria: 6.Euro, bazkaria: 16.Euro, Afaria: 16 euro.

Ostatua: 3 izarreko hotela.

Ikastaro edo azoketara joatean ere, bazkari, afari edo ostatu hartzeko ezarri den muga aplikatuko da. Erakundeen arteko harremanak direla eta gastu handiagoak egin behar direnean soilik ordainduko ditu Udalak, dagokion fakturak aurretik aurkeztuta.

12.Beharrezkoa ez den ordainketaren itzulketaren arduradun izango dira gastua egin duten Udaleko agintari, funtzionari edo kideak, kredituak likidatzean, agiriak egin edo konpromisoak hartzean, dituzten funtzioen arabera.

Edozein funtzionariok edo agintarik, norbaiten erruagatik edo arau-hauste larriren batengatik, lege mailako xedapenen aurkako ekintzak egin edo erabakiak hartzen badituzte, Udalari kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio sor daitezkeen kalteengatik.

Gastu eta ordainketen agintariak, kasu guztietan, eta Kontu-hartzaileak ez badu idatziz bere desegokitasuna hatzematen, baimentzen duten ordainketa guztien arduradun izango dira, eta krediturik gabe baimentzen, likidatzen duten edo ordaintzen duten mugimenduen arduradun.

13.Salmentak.- Alkatetzaren agindu bidez salduko dira beharrezkoak ez diren objektuak, 360 euroko balioa baino txikiagoa dutenean; ulertu behar da oinarri honetan aipatzen diren salmentak Udalaren beste hitzarmen batzuetatik kanpo geratzen direla.

14.-Alkateak ez du bere eskumenik inoren esku utzi, eta ondorioz Tokiko Araudiaren Oinarriak arautzen dituen 7/1987 Legearen 21 artikuluan zehaztutako eskumenak bereak dira.

15.Kredituen lotura juridikoen mailak honakoak dira:

Funtzio programa eta kontzeptua:

Transferentzia arruntak eta capital transferentziak.

Inbertsio errealak

Finantza aktiboen aldaketak.

Funtzio programa eta kapitulua:

2 kapitulua

Finantza gastuak

Finantza-pasiboen aldaketa

Langileen gastuari dagokion kapitulua.

2. kapituluko partida askoren gastuak urte guztian zehar egiten direla kontuan hartuta eta aipatutako partiden kredituak agortzea saihesteko kredituen lotura juridikoaren mailak behar bezala aplikatzeko, kontu-hartzailetzak kontrola 2007ko azarora arte egingo du aurrekontu partidan.

Gainera, ondorengo partidek banakako jarraipena izango dute urte guztian zehar, artikuluko honen hasieran zehaztutako kredituen lotura juridikoko mailak aplikatu diren ala ez kontuan hartu gabe.



PARTIDA	JATORRIA
226.111.00.02	Protokolo arretak, Gobernu-Organok
231.111.00.01	Dietak, lokomozioa, Gobernu Organok.
213.222.11.01	Ibilgailuen mantenua, Udaltzaingoa.
210.222.12.01	Bide-seinaleen mantenua, Trafikoa.
211.422.12.01	Eraikinen mantenua, Urdaneta Ikastetxea.
212.422.12.01	Makina, instalazio eta tresnerien mantenua, Urdaneta ikastetxea.
227.432.10.07	Hirigintza arloko azterketa teknikoak.
212.433.00.01	Makina, instalazio eta tresnerien mantenua, argiak.
212.434.11.01	Instalazioen, parke eta lorategien mantenua.
212.441.10.01	Makina, instalazio eta tresnerien mantenua, Ura.
210.441.20.01	Makina, instalazio eta tresnerien mantenua, Saneamendua.
226.451.10.99	Kultur ekintzak
226.454.11.99	Herriko festak.
226.454.12.98	Euskal jaiak. Bestelako ospakizunak.
226.454.12.99	Euskal jaiak.Asteazkena.
226.454.13.98	Eguberrietako apaingarriak.
226.454.13.99	Eguberrietako festak.
210.511.00.01	Bide publikoen mantenua.
226.622.31.91	“Artzain Eguna” azoka.
226.622.31.92	Erdi Aroko Azoka.
226.622.31.97	Ardo azoka.
226.622.31.99	Eguberrietako azoka berezia.

16.-Ordainketak. Ordainketak egiteko ohiko metodoa banku bidezko transferentzia izango da. Ordainketak faktura Kontu-hartzaitzara sartu eta 60 egun igaro baino lehen egingo da, edo obra egiaztapena bidaltzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, beti ere aginduzko ordainketa erabakia edo oniritzia baldin badute fakturek.

17.Udaleko osoko bilkurak, 2007ko maiatzaren 10eko osoko bilkuran, Ordiziako topinimia jaso eta finkatzeko urte askotako gastua onartzea erabaki zuen, gastuaren ondorengo banaketarekin: 2007 urtea: Beka+Euskaltzaindia (15.200 euro), 2008 urtea: 20.199,85 euro eta 2009 urtea: 20.788,19 euro.

Beste alde batetik, 2008-10-27ko 985 Dekretu bidez 2008 eta 2009 urteetarako gastua onartu zen, lanpostren antolakuntza eta balorazio azterketa bat egiteko, honako banaketarekin: 2008 urtea (14.023,24 euro) eta 2009 urtea (29.986 euro).

Oinarri hauetan 500/1990 Errege Dekretuaren 73.1 artikulua betetzeko oinarriak jasotzen dira.

18.Lurralde guztietako udalerrien arteko harreman konstruktiboa sustatzeko xedearekin, hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiro arloko ekimenak bultzatzeko, beste udalerrien eskumeneko arlo batzuetakoak barne, eta 2010eko proiektua ikusita, aurrekontuko 7.500 euro esleitzen zaizkio espreski eta era zuzenean, UDALBIDE Elkarlan Elkarteari.

Ordizia, 2010eko urtarrilak 14  
Alkatea





Proposamena onartzeko gehiengoa. Soila

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna.

2009 urtea krisia dela eta urte berezia izan dela aipatu du.

Foru Funtsan 2009an mozketak bat izan da eta 2010erako berriz haztea aurreikusten da.

Diru-laguntza garrantzitsuak lortu dira, kulturako %1ekoa bezala, 731.000 €rekin, eta baita Uraren Partzuergotik lor daitekeen dirua.

Zaharren Egoitza kudeatzeko diru kopuru garrantzitsua jasotzea espero da.

Zor publikoa jaitsi da era berean, 2009 urtearen hasieran 5.000.000 € eta une hauetan 3.900.000 €.

Gizarte arloan gastua mantentzeaz gain, hazi egingo da modu garrantzitsuan.

Inbertsioa mantendu egingo da 1.300.000 €tan.

Horrez gain, aurrekontu honetan krisiaren kontrako neurri batzuk proposatu nahi izan dira.

Udalarenak berezkoak ez diren eskumen batzuk udalak bere gain hartu ditu (San Jose Egoitza), udalak 416.500 € baino gehiagoko ekarpena egiten du, aurreko urteko ekitaldiarekiko %16ko igoerarekin.

Horrekin batera Haur Eskolari zuzendutako partidak hazi dira. Feriak, Gazteria, Merkataritza...etab.

Hezkuntzara bideratutako diru-laguntzak mantendu dira: Jakintza Ikastolara, Urdaneta Eskolara, Musika Eskolara, institutura.

“Ordizia 2012” partida berria sortu da, asteroko azoka sortzeko V. mendeurrenerako ekintzak finantzatzeko.

Enplegua sustatzeko neurriak hartu dira (Gipudek, 5 langilerekin, Auzolan 9 langilerekin) eta Euskadi-09 programarentzako eskaera egitea aurreikusten da, eta INEMekin hitzarmenen bat egitea, enplegu gehiago sortzeko.

Zergak eta tasak izoztu egin dira, igoerarik izan gabe.

Aurrekontuen kontrolean ahalegina egin beharko da, gastua kontrolatzeko aurrekontua onartzeko une berean.



2010erako Tokiko Inbertsio Funtsaren barruan ondorengo proiektuak proposatu dira.

1. Jubilatuen Etxea
2. Frontoi txikia estaltzea.
3. Skatepark.
4. Majorin berritze-lanak

Bidegorriko lanekin jarraituko dugu, baita irisgarritasun obrekin ere.

Uren Partzuergoak aurten azpiegituretan eta ur-sarean inbertsio batzuk aurreikusten ditu.

#### Txurruka jauna

Zerga eta tasen barruan sarrerarik garrantzitsuenak zabor tasetatik eta ibilgailuen zergetatik berreskuratuko ditugula esan du, zerga bilketari dagokionez OHZ jaitsi egingo baita.

Partzuergoak ez-ohiko inbertsio batzuk egingo ditu, 700.000 € ingurukoak.

Eraikuntza eta Obren zergetan 600.000€ aurreikusi dira, 2009ko urteko ekitaldiarekiko %20ko igoera dakar honek.

Txurruka jaunak azaldu du gastua kontrolatu egin beharko dela.

Gastu arruntak %2ra jaitsi dira, 10.000.000 €tik 9.900.000 €ra.

Inbertsioak jaitsi egin dira baina ez da inongo diru-laguntzarik kontuan hartu. Horiek lortzen badira inbertsioa handitu ahal izango da.

Finkatutako Aurrekontua (22.455.822 €) pasa den urtekoa baino baxuagoa da.

#### Kontuhartzaile jauna

Azaldu du aurten ez dela informatikarako eta bulegotako materiala erosteko partidarik aurreikusi. Informatikako 5.000 € eta bulegoko bestelako materialak lortzeko beste 5.000 € aurreikustea onartu da.

#### Asenjo jauna

Azaldu du Zerbitzu Sailean kale-garbigailu bat apurtu dela eta komeni dela berria lortzeko aurrekontuetan aurreikustea.

#### Alkate jauna.

Esan dio "renting"-en erosi edo Portu behar bada balorazio bat egin beharko dela aurretik, baina abantaila handiena duen bidea aztertu beharko dela.



### Txurruka jauna

Asenjo jaunari esan dio beharrezkoa bada, eskatuko dela, baina lortzeko abantaila gehien duen bidea aukeratu behar dela.

### Dubreuil jauna

Aurrekontuen aldeko bere botoa azaldu du. Adierazi du helburua lortu dela, alegia, aurrekontua onartzeko prozedura urte bukaeran edo hasieran egin behar zela aurreikusi zutenean, bete egin dela.

Aurrekontuaren eduki sozialaren alde dagoela azaldu du, eta krisiari aurre egiteko neurri bereziekin bat egiten duela.

Gizarte Ongizate Sailean udal plantila indartu egin da, eta beraz, ordiziarren beharrei behar bezalako erantzuna eman dakieke.

Saileko ekintza mardul guztiak mantentzeaz gain, enplegua sortzeko krisiaren aurkako neurriak handitu egin dira (Gipudek, Auzolan, Euskadi 09...etab.)

Mugikortasun urriko pertsoneri laguntzeko programa bat dago, berdintasuna bultzatzeko planak eta programak, herritarren partaidetza eta boluntarioria sustatzeko planak daude.

2010ean herritarren partaidetzaren gaia sakonduko da. Gazteriaren aldeko eta ingurumenaren (argiak, etab.) aldeko apustu handia egiten dela uste du.

Enplegua sustatzeko neurriak onartzen ari dira.

Irisgarritasuna aurrekontu honetan aurreikusia dago, eta beharbada herritarrei elementu mekanikoren bat jartzeko tokiari buruzko kontsultaren bat egingo da.

Egoitzan irisgarritasun arautegia betetzeko egokitzapen lanek aurrera darraite.

FEIC-eko funtsei esker (1.054.000 €) udal obrei aurre egin ahal izango zaie, inbertsio batzuk egin ahal izango baitira.

Ordizia Lantzen SA elkarteak San Juan eremuaren garapenaren aldeko apostu indartsua egin du.

### Maiza andrea

Beharren azterketa bateratua egin dela azaldu du, eta hori dela Aurrekontu hauen abantailarik nagusia, eta beharra dagoen uneetan erabili behar direla beste garai batzuetan lortutako baliabide eta onurak.

Honekin batera ingurumenaren arloan, merkataritza arloan...etab. hartuko diren neurriak azpimarratu ditu.



Osagai soziala esanguratsua da. Gobernu taldeak elkartasun keinu bat egin du, partida batzuk pasa den urtearekin alderatuta izoztu egin diren arren, ez baita hori gertatu arlo sozialean.

Hala ere, kultura eta hezkuntzan inbertitzea etorkizunean gizartean prebentzioa aplikatzea da, eta zentzu honetan sail garrantzitsu hauek nahiko sakrifikatuta daudela esan du. Bere taldeak Aurrekontuen alde bozkatuko du baina diru-laguntzen inbertsio iturriak handitzeko ahalegin handia egin beharko dela uste du.

Horrekin batera, datorren urtean kultura arloan ahalegin berezia egin beharko litzatekeela uste du.

### Leunda jaunak:

Beraiek Maiza andreak aipatutako bateratutako azterketa horretatik kanpo geratu direla adierazi du.

### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 1 (IU-EB/ARALAR)

Abstentzioak: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

### 7.2010 ekitaldiko Plantilla Organikoa.

#### Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen 1.985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legearen 20. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio urtero Aurrekontuak onartzea, eta funtzionarioen, langile finko eta aldi baterako langileen lanpostu guztiak bateratzen dituen langileen plantilla.

Aipatutako arautegia betetzeko eta dauden aurrekariekin, azterketa eta justifikatzeko agiriekin, Idazkaritzak eta Kontu-hartzaitzak Udal honetako 2010 urterako Plantilla Organikoa Erato dute, aipatutako aginduek zehazten dituzten irizpideei erantzunez.

Horrekin batera Majori Kiroldegiak et OAAA (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), goian aipatutako artikulua kontuan hartuta, 2010 urteko ekitaldirako dagozkien Plantilla Organikoak egin dituzte eta onartzeko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aurkeztu.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako erabakia hartzea proposatzen da

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Lehena.- 2010 urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa onartzea, Udal honetako langile funtzionarioei dagozkien plazak dituen, eta erabaki honen ERANSKIN gisa doana.**

**Bigarrena.- Majori kiroldegia SL eta OAAEn (San Jose Egoitza eta herri Antzokia) Plantilla organikoak onartzea, 2010 urteko ekitaldirako langile finkoentzat gordetako lanpostu guztiak disuena.**

**Hirugarrena.-GAOn onartutako agiri hauek argitaratzea, toki-arautegi gaietan indarrean dauden lege xedapenei buruzko Testu bateratuaren 127 artikulua zehaztutakoa betez.**

**Laugarrena.- Agiri hauek behin betiko onartzea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Plantillan akatsa bat dago, Zerbitzu peoiak guztira 7 baitira, baina 4 postu beteta daude eta 3 hutsik, eta ez 5 beteta eta 2 hutsik. Zuzenketa egin da.

#### Leunda jaunak:

Plantilla organiko hau ATTEST Aholkularitzak egindako Antolakuntza Proposamena dela esan du eta beraiek horretarako sartu den mahaitik kanpo geratu direla, eta contra bozkatuko duela.

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 1 (IU-EB/ARALAR)

Abstentzioak: 0



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

### 8.2010 ekitaldiko lanpostuen zerrenda.

#### Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.

Aipatutako araudia oinarri harturik, Idazkaritza eta Kontu-hartzailtza Sailak lanpostuen zerrenda eratu du, Euskal Funtzio Publikoaren legearen 15 artikuluan zehaztutako irizpideak kontuan hartuz.

Idazkaritzak eta Kontu-hartzailtzak egindako arauzko txostena irakurri da, eta horri erantsi zaio lanpostuen gastuen azterketa eta aurreikusitako Sarrera Arruntekiko portzentajezko aldea.

Horrekin batera, hizkuntz normalizazio plangintzarako 86/1997 Dekretuaren 9 artikulua zehaztutako prozeduraren tramitazioa amaituta, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 97 artikulua zehaztutakoaren arabera, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-data lanpostuen zerrendan finkatuta egon behar dute.

Bestalde, Majori Kiroldetgia SL eta OOAA-k (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), 2010 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak eratu dituzte, aurrekontuetan behar bezala finkatuta.

Hau guztia kontuan izanik, honakoa proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Lehena.- 2010 urteko ekitaldirako Lanpostu Zerrenda onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN eremuan dagoen bezala.**

**Bigarrena.- Majori Kiroldetgia SL-ko eta OOAA-etako (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia) lanpostu guztiak, 2010 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak onartzea, dagozkion aurrekontu-dotazioak dituztela.**

**Hirugarrena.-GAOn onartutako agiri hauek argitaratzea, toki-arautegi gaietan indarrean dauden lege xedapenei buruzko Testu bateratuaren 127 artikulua zehaztutakoa betez.**



**Laugarrena.- Lanpostuen Zerrenda behin betiko onartzea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 1 (IU-EB/ARALAR)

Abstentzioak: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

9.Leonor Uranga Saizek karguari uko egitea, jakinarazpena.

#### Proposamena

Hauteskunde-Batzorde Orokorraren 2009ko urriaren 7ko idatziaren berri eman da, Ezker Batua-Berdeak eta Aralar koalizioko zinegotzi kargu hutsa betetzeari dagokiona, udalerrri mailako ordezkariak ordezkatzeko tramitazioaren baitan.

Leonor Uranga Saizek, Ordiziako Udalaren zinegotzi aktaren jabeak, zerrendako 3.ak, karguari uko egin diola jakinarazten da. Zerrendako 4.ak, Martín Zurbano Irizarrek ere uko egin dio karguari.

Alderi politikoak 2007ko udal hauteskundeetan egindako zinegotzi akta kontuan hartuta Carlos Gonzalez Astiz jauna proposatzen da kargurako.

Hau guztia kontuan izanik, honakoa proposatzen da:

**AKORDIO PROIEKTUA**



\* Udaleko Osoko Bilkurari Leonor Urbana Saizek eta Martin Zurbano Irizarrek, hurrenez hurren, zerrendako 3. eta 4. hautagaiek, Udal honetako EB-BERDEAK/ARALAR zinegotzi karguari uko egin diotela jakinarazi.

\*Carlos Gonzalez Astiz jauna EB/BERDEAK/ARALAR alderditik Udal honetako zinegotzi izendatzeko proposamena egitea,

\*Honako erabakia Hauteskunde Batzorde Orokorrean bidali proposatutako hautagaiaren izendapena egin dezan.

**Osoko bilkura jakinaren gainean dago.**



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

10.DBLO (Datuen Babeserako Lege Organikoa) betetzeko eta izaera pertsonaleko datuen fitxategiaren segurtasun agiria onartzea.

#### Proposamena

Izaera Pertsonaleko Datuen abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren xedea da pertsona fisikoen askatasun publikoa eta oinarrizko eskubideak bermatu eta babestea, batez ere bere familiaren eta norbanakoaren duintasun eta intimitatea.

2004ko irailaren 30eko osoko bilkuran izaera pertsonaleko datuen fitxategiak eta fitxategiak babesteko segurtasun agiri bat sortzea erabaki zen.

Abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoa osatzen du, babesteko araudian neurri berriak sartuz.

Hori guztia ikusirik indarrean dagoen segurtasun agiria indargabetu behar da, eta 1720/2007 Errege Dekretura egokitutako segurtasun agiri berria onartzea, eta baita izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategiak egokitzea ere.

2010eko urtarrilaren 7ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

**1.Ordiziako Udaleko fitxategi automatizatuak eta automatizatu gabekoak babesteko segurtasun agiria onartzea, 2004ko irailaren 30ean onartutako agiria indargabetuz.**





2.I Eranskinean zerrendatutako izaera pertsonaleko datuen fitxategiak kentzea, gaur egun indarrean daudenak, eta II eranskinean zerrendatutako izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzea.

3.Erabakiaren edukia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

4.Erabakiaren edukiaren berri ematea Datuak Babesteko Euskal Agentziari.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna.

Burutu diren lanen berri eman du eta datuak babesteko araudia betetzeko oraindik egiten ari diren lanen berri.

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (IU-EB/ARALAR)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

#### 11.Galde-eskeak

Pertsona batek, jende artetik, Jakintza Dantza Taldeko ordezkari gisa esan du Leunda jaunarekin erabat ados dagoela osoko bilkuraren ordutegiari dagokionean.

Gainera Osoko Bilkurara Milagrosako lokalen egoera txarra salatzea etorri dela esan du, bertan entseguak egiten dira. Ikasleen gurasoen haserrea azaldu nahi izan du gainera.



Alkate jaunak esan dio hitzordua emango diola gaiaz hitz egiteko.

.....

Asenjo jaunak esan du Manrique jauna ez dela etorri eta Hizkuntza Eskola Ofiziala irekitzeko ekitaldira ere ez zela azaldu.

Zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua ere ez zela azaldu salatu du, eta irekitze ekitaldira etortzeko ez zuela aitzakiarik, data hilabete lehenago jakinarazi baitzizaion.

Horrekin batera proiektua aurreko legealditik zetorrela azaldu du, eta ez Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta ez Alkateak ez dutela horri buruzko aipamenik egin.

Alkate jaunak erantzun dio esanez bere diskurtsoan EAko zinegotziek Udalean egindako lana berariaz aipatu zuelañ.

.....

Asenjo jaunak, bestalde, esan du Udaleko webgunean, PNVko 2007/2011 hauteskunde programan, PNVkoa ez den programa bat azaltzen dela, baizik eta Udal Gobernu taldearen programa bat. Ikuspuntu legal, político eta demokratikotik gertatutakoa onartezina dela uste du eta zuzentzeko eta PNVk barkamena eskatu dezala exijitu du.

.....

Dubreuil jaunak adierazi du adinekoen boluntarioria sustatzeko, Ongizateko Aholku batzordeak Herri Adierazpen bat onartuko duela, eta osoko bilkurako kide bakoitzari banatu dio adierazpena.

.....

Leunda jaunak EA eta PNVri galdetu die zein diren osoko ohiko bilkurak goizeko 8.00etan egitearen arrazoiak.

Asenjo jaunak erantzun dio, arrazoi pixka bat emanez, baina ez dio arrazoi guztiz eman. Leunda jaunak osoko bilkurak arratsalde izanda jende gehiago joango litzatekeela esaten duenean, iruditzen zaio ez dela guztiz egia.

Ez da gauza bera oposizioan edo gobernuan egotea.

Oposiziotik, Leunda jaunak esan du, berak, bere alderdiak gobernatzen duen beste udalerrietako ekintza berak kritikatzeko dituela, adibidez Donostiakoa.



Donostiari dagokionez, Leunda jaunak esan du ez dagoela ados finkatuta duten osoko bilkurako ordutegiarekin.

Dubreuil jaunak uste du parte-hartzea hori baino zabalagoa dela. Egoera berezietan neurri bereziak finkatzen direla uste du, eta gutxienez, demokratikoki hautatutako ordezkari politikoak osoko bilkurara askatasunez eta irainik eta erasorik jaso gabe joan daitezten bermatu behar dela.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak osoko bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta bik behin-behineko Idazkariak egiaztatzen dut.